# AZERIA ETA OTSOA

*Muxikako Jose Etxeberrik kontatuta 1925ean*

Luki barrabasa Peru eta Mariren sukaldeko leihoaren pareko basoan bizi zen.

Goizean Marik noiz esnea ipintzen zuen egozten ikusten zuen.

Esnea ipini eta berehala azeri horrek Mariri deitzen zion, Goiko-Etxeko gizon batek bezala: *Mari, behia artoa jaten ari da.*

Mari behiak ikusten joaten zen arin-arin, eta azeriak bien bitartean esnea jaten zuen.

Mari etortzen zenean etxera galdara hutsik aurkitzen zuen. Ez zekien zer esan Peruri.

Peruk esaten zion beragatik goizero gosaldu gabe geratzen zela.

Eta hortik aurrera drogak edo errietak sortzen hasi ziren.

**Joxe Miel Barandiaran**
Obras Completas Tomo II
Eusko-Folklore
Editorial La Gran Enciclopedia Vasca
Bilbao, 1973